

12 – BERGONDA-GAUBEA (2017-4-29)

EZAUGARRIAK

DISTANTZIA: 23,3 km
DESNIBELA: + 1.165 m / - 1.091 m
DENBORA: 7 or. – 7 or. 15 min

Etapa lauak amaitu, eta etapa menditsuak hasiko ditugu berriro, Burgos eta Bizkaia arteko mugan. Etapa honen ezaugarriak direla eta, komeni da eguraldi ona izatea. Artzena mendilerroan sartuko gara, zeinak Gaubea inguruko haranak (Araba) dituen iparraldeko mugan, eta Tobalina harana (Burgos) hegoaldean: gailur bertikaleko mendikate ikusgarri bat.

Bergondan (479 m) hasiko dugu etapa, eta Arriba auzora iritsiko gara. Pista batean gora, Bachicabo herrira iritsiko gara (650 m) (2,7 km), eta, herrian pista luze eta aldapatsu bat hartu, 425 metroko desnibela ganditzeko, eta gailur lerrora eta Bachicabo mendira daraman bidexkara helduko gara (1.075 m) (6,1 km).

Gailurreko bidexka alde batera utzi, eta beste batetik jarraituko dugu, gailur lerroan aurrera. Laster ikusiko dugu ezpel adar sarri eta altu batzuek bidexka ixten dutela pixkana-pixkana eta kontu handiz ibili behar dugula gurutzatzeko; hala ere, badira "cairns" batzuk, pixka bat orientatzen lagunduko digutenak. Bada, gurutzatutakoan, bidexka estu bat hartu, eta harkaizti handi baten beheko aldetik helduko gara.

Harkaitzen artean bada korridore estu, aldapatsu eta belartsu bat, Mota mendiaren gailurrera eramango gaituena (1.319 m) (9,1 km).

Gailurretik, ikusgarriak dira bistak: iparraldera, Gaubeako mendiak, eta mendebaldera, berriz, Cueto mendilerroko gailurrik altuena (1.345 m).

Gailur lerroan aurrera, Muenako atakara iritsiko gara (1.220 m) (10,3 km). Bidexkatik kanpo, jaisten hasiko gara bertan, "cairns"ek zedarritutako pagadi batean beheara, pista bateraino, eta, handik aurrera, pista luze eta erosoetan barrena ibiliko gara. Burgosko San Zadornil izeneko herritik datorren errepide estua bat hartuko dugu eta Kexoko auzoa inguratuz pasatuko gara (660 m) (18,6 km).

A-4332 errepidea hartu, eta Gurendes Goikoa auzotik pasatuko gara (584 m) (20,5 km), eta, errepidea utzitakoan, pista batean aurrera, etapa amaierara iritsiko gara, Gaubeara (553 m) (23,3 km).